



Hydrosense

SARRERA:

Gu Naroa Pedrera, Ane Restoy, Unax Ramirez eta Ariane Pérez gara. Leioako Barandiaran institutuan ikasten dugu eta Batxilergoko bigarren mailako ikasleak gara.

Sentsoreen bidez landareei konektatzen dena eta eguzki plakak dituen gailu teknologiko bat da. Bildutako informazioa, zure telefono mugikorrera bidaliz jakinarazten dizu.

Gure proiektua, sistema sinple bat da eta landareen beharrak neurtzen ditu. Honek laguntzen du landareak hobeto zaintzeko. Gainera, landareak ura behar duenean bakarrik esaten du eta horrela behar dutenean bakarrik ureztatzen dira. Horrela, ura aurrezten da eta behar den ura bakarrik erabiltzen da, gaur egungo baliabide garrantzitsu bat delako.

Hau egitea erabaki dugu ingurumenaren zaintza garrantzitsua dela uste dugulako eta teknologia errazek eguneroko arazoak konpontzen lagun dezaketelako. Horregatik, gure proiektuak landareen zaintza errazagoa egiten du eta, aldi berean, ingurumenarekiko errespetua sustatzen du.

Gure proiektua antzeko beste proiektu batzuetatik desberdintzen da, erabiltzeko sistema erraz bat delako, hau da, edonork erabili dezaketelako. Gainera, daukagun helburu nagusia ingurumenari laguntzea da, eta horrela ura ez da modu txarrean erabiltzen.

